

SONDIKAKO UDAL FUNTSAREN ISAD

Identifikazio-arloa

Erreferentziazko kodea	ES 48020 AHFB/BFHA U48904
Titulua	Sondikako Udal Artxiboa
Data(k)	1761 – 1966
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> – Metro linealak: 22,22 m/l – Kaxak: 163 – Liburu solteak: 71 – Karpetak: 6 – Espediente-kopurua: 3.251 Papera.

Testuinguru arloa

Ekoizlearen izena	Sondikako Udala
Instituzio historia	<p>Sondika Bizkaiko Txorierrri eskualdean dago, eta Bilboko barruti judizialekoa da.</p> <p>Sondikako elizatea Uribeko merindadekoa zen, eta Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusietako berrogeita lau zenbakiko eserlekua hartu zuen.</p> <p>Bizkaiko lur lauan gertatzen den bezala, Sondika elizate bihurtu zen Erdi Aroko instituzionalizazio-prozesuan. San Joan Bataiatzaileari eskainitako parrokia-eliza XII. mendean eraiki zuten Asuako jaunek, basailuek errazago izan zezaten elizkizunetara joatea; ordura arte Erandioko Santa Maria parrokiara joan behar izaten zuten. Horren inguruan herrigunea sortu zen.</p> <p>Behe Erdi Aroan Bizkaiko lurralde osoan izandako bando-kideen borrokak jasan behar izan zituen, Lur Lauan eta hiribilduetan bezala, baita mendeetan zehar lurraldeak izan zituen gatazka armatuak ere, XIX. mendeko gerra karlistak eta XX. mendeko Gerra Zibila bereziki.</p>



Instituzio historia	<p>Bere ekonomia landatarra izan da, nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa eta basokoa. Burdinolak eta errotak zituen.</p> <p>1940an, Bizkaiko aireportua inguruan jartzea erabaki zuten, baina lanak geldiro egin zituzten, eta 1948ko irailaren 19ra arte ez zuen lehen hegazkina lurreratu, Madrildik zetorren Aviaco konpainiarena. San Joan Bataiatzailearen eliza suntsitu egin zuten aireportua eraikitzeke obren ondorioz.</p> <p>1966ko martxoaren 30eko Dekretuaren bidez, Sondika Bilboren barrukoa izatera igaro zen Erandio, Derio, Zamudio eta Loiuko udalerriekin batera. 1983an, Sondika hiriburutik bereizi zen, 1982ko abenduaren 20ko Dekretua betez, eta berriz ere udalerrri bihurtu zen, 1966an zituen muga berberekin</p>
Artxibo historia	<p>Sondika elizateko agiriak udal artxiboan egon dira 1992an Bizkaiko Foru Artxibo Historikora eraman arte. Lekualdaketa horrek 1966. urtea baino lehenagoko dokumentazio historikoa ekarri zuen berekin, Bilborekin bat egin arte, eta gainerako dokumentazioa udal-artxiboan dago.</p> <p>Elizatea Bilboren barruan egon zenez hogeitaz urtez, hutsune logikoa dago dokumentu-ekoizpenean .</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak dokumentazioa lekualdatu aurretik egindako txostenaren arabera, tamaina handiko artxiboa da, gehienbat XX. mendekoa. 1984an sute bat izan zuen, eta desanexioaren ondoren sortutako dokumentazioaren zati bati eragin zion.</p> <p>Artxiboa udaletxeko azken solairuan zegoen. Oso egoera onean zeuden kutxetan jarritako paper-sortetan lotuta zegoen dokumentazioa.</p> <p>Dokumentazio guztia Madrilgo taulan oinarritutako taula propio baten arabera antolatu zen. Funtsak antolatzeko prozesuari jarraituz, dokumentuak fitxetan deskribatu ziren.</p>
Sarrera modua	<p>BFAHn gordailatutako dokumentazioa 1992ko irailaren 21ean sartu da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Sondikako Udalak urte horretako abenduaren 10ean sinatuko zuten lankidetzeta-hitzarmena betez.</p>



Eduki eta egitura arloa

Irismena eta edukia	Sondikako elizateak eta Udalak 1761 eta 1966 artean sortutako dokumentazio historikoa. Bilbok udalerrria erantsi aurreko dokumentazio guztia gordailatu du. Horrez gain, Bake Epaitetik hiru dokumentu dituen kutxa bat ere badago, 1951 eta 1967 artekoak.
Balorazioa, hautaketa eta ezabaketa	Kontserbazio iraunkorreko dokumentazioa.
Sarrera berriak	Beste hitzarmen bat sinatuz gero, sarrera berriak egon daitezke.
Erakundea	Dokumentazioa Udal Artxibozainen Lantaldearen sailkapen-koadroaren bidez antolatu da, serie batzuekin handituta. Koadroa BFAHn dauden udalerrri guztietarako erabiltzen da, eta, beraz, baliteke udalerrri horretan sortutako dokumentazioaren artean serie batzuk ez islatzea. Gobernuaren, Idazkaritzaren eta Udal Administrazioaren eta Ogasunaren jarduerak hartzen ditu, honela: <ul style="list-style-type: none"> – Gobernua: 95 dokumentu 1761 eta 1966 artekoak. – Idazkaritza: 2363 dokumentu 1849 eta 1966 artekoak. – Ogasuna: 789 agiri 1833 eta 1966 artekoak.

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzen arloa

Sartzeko baldintzak	Sarrera askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Erreproduktzio baldintzak	Erreproduktzio askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Dokumentuen hizkuntza/idazkera	Gaztelania.
Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Kontserbazio-egoera, oro har, ona da.
Deskribapen tresnak	Dokumentazio guztia katalogatuta dago, eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak erabiltzen dituen deskribapen-tresnen bidez eskura daitezke: <ol style="list-style-type: none"> a. Sailkapen-koadroa. b. ARWE datu-basea, artxiboari buruzko katalogazioa kudeatzeko. Hainbat sarbide-puntu eta onomastika, toponimia eta gaikako indize ditu. c. ARIT datu-basea, kanpo-kontsultarako, aurrekoaren informazio eta sarbide berarekin.



Lotutako dokumentazio arloa

Jatorrizko dokumenturik ote dagoen eta horien kokalekua	Dokumentazio guztia originala da.
Kopiarik ote dagoen eta horien kokalekua	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa gordetzen duen dokumentazioaren zati bat digitalizatzen eta Interneten erabiltzaileen eskura jartzen ari da. Sarbidea ARITen datu-basea ren bidez ere egiten da. Akta-liburuak, 1830 baino lehenagoko dokumentazioa, 1900 baino lehenagoko dokumentazioa (planoak barne), eta 1910 baino lehenagoko biztanleen erroldak digitalizatu dira.
Lotutako deskribapen unitatea	Sondikako udalarekiko lotutako dokumentu-iturriak daude BFAH osatzen duten ataletan, batez ere atal administratibo eta judizialean. Sondikak 1966. eta 1983. urteen artean sortutako dokumentazioa gordetzen du Bilboko Udalak, haren zatia den aldetik. Udalak 1985etik gaur arte sortutako dokumentazioa udaletxean gordetzen da. 2740 dokumentazio-kutxa ditu, 340 metro linealekoak. Inbentario bat eta datu-base informatiko bat ditu, eta horren arduraduna idazkaria da. Harekin harremanetan jartzeko modua dago 944 53 50 10 telefonoan eta helbide elektroniko honetan: sondikakoudala@sondika.org .
Argitalpenei buruzko oharra	Torrubia Elias, Nerea (2004). Loiu eta Sondika: Azterketa historiko-artistikoa. Bizkaiko herrien monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.

Oharren arloa

Oharrak	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak artxibo historikoaren funtzioa betetzen du funtsak gordailutu dituzten udalerrientzat.
---------	--

Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4 SL enpresak Bizkaiko Agiritegi Historikoko udal-atalerako egindako deskribapena, bertako teknikariak gainbegiratuta.
------------------------	--



Arauak edo erregelak	General International Standard Archival Description, Second Edition, ISAD (G) (Agirien Deskribapenerako Nazioarteko Arau Orokorra). Deskribapen Agirien Batzordeak hartutakoa Agirien Nazioarteko Kontseiluan, Stockholmen (Suedia), 1999ko irailaren 19-22an. Madril. 2000.
Deskribapenaren data	2020/01/20